



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko abenduaren 17a

109. ZK.

---

### **A U R K I B I D E A**

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena.**

*ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen ondoko Foru Lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketak: "Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena." Proiektu hori 2012ko ekainaren 29ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**1. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DE NAVARRA**

**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehen idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Foru Legearen izenburua aldatzea proposatzen da. Hona izenburu berria:

"20/2010 Foru Legea, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua sortu eta arautzen duena"

Zioak: Gure ustez, egokia eta ezinbestekoa da argi gera dadila lege honek Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautu ez ezik sortu ere egiten duela.

**2. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA-EZKERRA**

**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarreko lehen idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Lehen idatz-zatiko testu osoa kendu eta horren ordez hau jartzea:

"Arauaren izena aldatzen da, hemendik aurrera hauxe izanen baita:

1. artikulua. Xedea.

Abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua entitate publikoa sortzen eta Nafarroan Giza Zelulen, Ehunen eta Organoen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen baita.

Zioak: Gure ustez, legedi berria transplanterako erabiltzen diren giza organoen dohaintzari buruz Europako zuzentarauak ezarritakoaren arabera doitu behar da. Halaber, dohaintza guztiei eta haien erabilera medikoari buruzko tratamendu integral eta orokorra egin beharra dago.

**3. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI ETA  
BILDU-NAVARROA**

**PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Lege proiektuaren izenburua aldatzeko zuzenketa.

Onetsi beharreko foru legeak honako izena izanen du:

“Abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen eta Nafarroako Transfusioen eta Giza Zelula eta Ehun Sarearen antolamendua ezartzen baita.”

Zioak: Gardentasuna dela eta, titulua jatorrian dagoen bezala utzi beharra dago.

#### 4. ZUZENKETA

##### **SOCIALISTAS DE NAVARRA**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

1. artikuluari testu berria ematea proposatzen dugu. Hona:

“1. artikulua. Lege honen sorrera eta helburua.

Nafarroako Odol eta Ehunen Bankua sortzen da, Nafarroako Ospitaleguneko Zuzendaritza Medikoari atxikitako unitate organiko gisa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren barruan. Izaera publikoa izanen du beti, dagozkion kontsiderazioarekin eta zuzendaritza-egiturarekin.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Odol eta Ehunen Bankua arautzea aurreko idatz-zatian aipatutako ezaugarrien arabera.”

Zioak: Ezinbestekoa iruditzen zaigu 1. artikulua legearen bitartezko sorrera eta haren xedea jasotzea. Beharrezkoa iruditzen zaigu, halaber, lege honen bidez sortzen den zerbitzuaren izaera publikoa aipatzea, haren atal bat edo hura osoa pribatizatzeke gerta litezkeen ekimenetatik babesteko. Argudiatu ahalko da Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren izaera publikoa nabarmentzea erredundantzia bat dela, zeren eta Nafarroako Ospitaleguneari atxikitako unitate bati buruz ari baikara, eta, nabarmena denez, Nafarroako Ospitalegunek izaera publikoa du. Horretaz jakitun, talde honek uste du ezinbestekoa dela nabarmen uztea, beharrezkoak diren errepikapenekin ere, Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren izaera publikoa.

#### 5. ZUZENKETA

##### **NAFARROA BAI ETA BILDU-NAVARROA**

##### **PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Bigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

20/2010 Foru Legeari 1. artikulua gehitzen zaio. Hauxe, hain zuzen:

“Sorrera

Nafarroako Odol eta Ehun Bankua entitate publikoa sortzen da, Osasunbideari beste edozein zentro bezala atxikia, Osasunbideko Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzaren menpean, eta osasun-zerbitzuen alorreko erakunde bati dagozkion kontsiderazioarekin eta zuzendaritza-egiturarekin.”

Zioak: Gure ustez, Nafarroako Odol eta Ehun Bankuak erakunde publiko bat izan behar du, odolaren, zelulen eta ehunen bankuaren eginkizunak esleituta edukiko dituen Nafarroako Foru Komunitaterako, legeria konplexua betetze aldera. ONOZen Laguntza Espezializatuaren Zuzendaritzaren pean egon behar du zuzenean.

#### 6. ZUZENKETA

##### **IZQUIERDA-EZKERRA**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren bigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testuan, hau jartzen du:

“.. Nafarroako Ospitaleguneko Zuzendaritza Medikoari atxikitako unitate organikoa den osasun zentro gisa.”

Honekin ordeztea proposatzen dugu:

“; eta Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikiko zaio, izaera eta nortasun juridiko berekiekin.”

Zioak: Beharrezkotzat jotzen dugu erakunde honen nortasun juridikoari eustea. Nortasun juridiko hori 20/2010 Foru Legean aitortu eta ematen zaio. Kalitate baldintzak, bai eta segurtasun arauak eta jardueraren nazioez gaindiko menpekotasunak ere, beraiekin dakarte kudeaketa autonomia izatea, arintasun, efizientzia eta eraginkortasun handiagoak lortze aldera.

#### 7. ZUZENKETA

##### **NAFARROA BAI ETA BILDU-NAVARROA**

##### **PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Hirugarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

20/2010 Foru Legeari 2. artikulua gehitzen zaio. Hauxe, hain zuzen:

“Izaera eta araubide juridikoa.

1. Nafarroako Odol eta Ehun Bankuak (NOEB) izanen du Osasunbideko Laguntza Espezializatu-

ko Zuzendaritzaren menpeko gainerako zentro publikoen izaera eta araubide juridiko bera. Zentro horien zerrenda agertzen da Osasunbidearen Estatutuetako 33.1.b) artikuluan. Estatutu hauek uztailaren 3ko 45/2006 Foru Dekretuaz onetsi (LNA 2006 200 254) eta apirilaren 12ko 19/2010 Foru Dekretuaz (LNA 2010,135) aldatu ziren.

2. Osasunbideko zuzendari kudeatzaileak NOEBen titularrarengan deskontzentratzen du, haren jarduera-esparruaren barrenean, edonolako administrazio-kontratuak sinatzeko eskumena, baldin eta haien izapidetzerako aginduzkoa den dokumentu bakarra kasuko faktura bada, zenbatekoak ez duelako gainditzen administrazio-kontratazioari buruzko foru-araudian ezarritako kopurua”

Zioak: Odolaren eta giza ehunen banku bakar eta zentralizatua sortuz lortu nahi da transfusio, zelula eta giza ehunei dagokienez dauden beharri-zanen asetzea optimizatzea, sustapen kanpainak koordinatzea, eskueran dauden giza baliabideak eta baliabide materialak kontzentratzea eta prozesu osoaren gaineko kontrola eskuratzea, honako helburuarekin: autohornikuntza erdiestea eta kalitate ziurtatzea ehun- eta transfusio-prozesuetan. Gainera, uste dugu modu horretan prestakuntza eta ikerketa erraztuko direla. Gure ustez iruzurra da organoen aitzakiapean argumentatzea banku bakar eta zentralizatuaren sorrera deuseztatu beharra dagoela.

## 8. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI ETA BILDU-NAVARROA

#### PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Laugarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa-idatz-zati horrek 20/2010 Foru Legeko 3. artikulua aldatzen du-. Hona testua:

“Helburua.

NOEBen helburua izanen da giza odoletik eta giza zelula, ehun eta organoetatik eratorritako produktuen osasun-premiei erantzutea, bai osasun-sare publikoaren bai osasun pribatuaren eta itunduaren esparruan, eta bermatuko du produktuen horien lorpena, biltegitratzea, kudeaketa eta hornidura, uneko eskuragarritasunaren arabera, bai eta Transplanteen Erakunde Nazionalarekiko koordinazioa ere.

NOEBek koordinatuko du Nafarroako Foru Komunitateko Transfusio, Zelula eta Ehunen Sarea, honakoek osatua:

1. Nafarroako Odol eta Ehun Bankua (NOEB).

2. Odolaren eta hemoderibatuen ospitale-gordailuak: Transfusio zerbitzuak.

3. Zelulen eta ehunen lorpen eta/edo inplante-rako ospitale-unitateak.

4. Nafarroako Emateen eta Transplanteen Koordinazio Autonomikoa”

Zioak: Gure ustez argitasun ezarekin lotutako arrazoiak egon daitezke organoekin zerikusia duen guztia kentzeari dagokionez. Badakigu organoak ez direla biltegitratzen eta abar, baina legeak nahi duen bakarra da organoen ematea eta transplanteak koordinatzea Transplantearen Erakunde Nazionalarekin, zuzenean O-NOZen Laguntza Espezializatuaren Zuzendaritzaren menpekoa den entitate publiko baten bitartez. Ilunkeria dagoela iruditzen zaigu.

## 9. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren laugarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testuan, hau jartzen du:

“Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren helburua izanen da giza odoletik eta giza zelula eta ehunetatik eratorritako produktuetarako osasun premiei erantzutea”

Honekin ordeztea proposatzen dugu:

“Nafarroako odol, transplanteetarako diren giza organo eta ehunen bankuaren helburua izanen da giza odoletik eta giza zelula eta ehunetatik eratorritako produktuetarako osasun premiei erantzutea”

Zioak: Beharrezkotzat jotzen dugu emate altruista guztien tratamendu integral eta orokorra egitea.

## 10. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren laugarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

2. idatz-zatian hau kentzea:

“Nafarroako Transfusioen eta Ehunen eta Zelulen Sarea koordinatuko du”

Honekin ordeztea proposatzen dugu:

“koordinatuko du Nafarroako zelulen, ehunen eta organoen transfusioaren sarea”.

Zioak: Beharrezkotzat jotzen dugu emate altruista guztien tratamendu integral eta orokorra egitea.

## 11. ZUZENKETA

### NAFARROAKO PARLAMENTUKO TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Bosgarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Bosgarren idatz-zatia 4. artikuluari buruzkoa da.

Proposatutako testuaren ordezkari honako hau proposatzen da:

“4. artikulua. Doakotasuna eta izaera altruista.

Odola, zelulak eta ehunak emateari buruzko Europako gidalerroak araupetzen dituzten oinarriko printzipioetan oinarrituta, jotzen da ematea egintza libre, boluntario, doako, anonimo, eskuzabal, altruista eta arduratsua dela. Horrenbestez, emaileak ezin izanen du kontraprestazio ekonomikorik jaso, eta hartzaileari ere ez zaio inongo kontraprestaziorik eskatuko erabilitako odol, zelula eta ehunengatik. Odol, zelula eta ehun zentroen jarduerak ez dute irabazi-asmorik izanen, eta soil-soilik ordainarazi ahalko dira baimendutako jarduerak egiteagatik emandako zerbitzuen egiazko kostuak”.

Zioak: Nafarroako gizartean bereziki errotuta dagoen ematearen izaera altruista eta solidarioa indartzea.

## 12. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren bosgarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Honakoaren ordezkari:

“Odola, zelulak eta ehunak emateari buruzko Europako zuzentarauetako oinarriko printzipioak aplikatuz, emaileak ezin du ordain ekonomikorik jaso; halaber, hartzaileari ere ez zaio inolako ordainik eskatuko erabilitako odol, zelula eta ehunengatik.”

Honekin ordezkari proposatzen dugu:

“Odola, zelulak eta ehunak eta organoak emateari buruzko Europako gidalerroetako oinarriko printzipioak aplikatuz, emaileak ezin du ordain ekonomikorik jaso; halaber, hartzaileari ere ez zaio

inolako ordainik eskatuko erabilitako odol, zelula eta organoengatik.”

Zioak: Beharrezkotzat jotzen dugu giza organoak emateari buruzko legeria indarduna aintzat hartzea. Emateak doakoak eta irabazi asmorik gabekoak izateak organoetan ere eragina du.

## 13. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI ETA BILDU-NAVARROA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Bosgarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa–idatz-zati horrek 20/2010 Foru Legeko 4. artikulua aldatzen du–. Hona testua:

“4. artikulua. Doakotasuna eta irabazi-asmorik eza.

Odola, zelula (...) eta emaileak ezin du ordain ekonomikorik jaso; halaber, hartzaileari ez zaio inolako ordainik exijituko erabilitako odol, zelula, ehun eta organoengatik. Odol, zelula, ehun eta organo zentroen jarduerak ez dute...”

Zioak: Gure ustez organoak ere sartu behar dira. Berriz diogu: koordinatzeaz ari gara. Odol, zelula, ehun eta organoen emate altruista, eta legean guztia jasota, argitasunez.

## 14. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI ETA BILDU-NAVARROA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Seigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa; idatz-zati horrek 20/2010 Foru Legeko 5. artikulua aldatzen du.

5. artikuluko a) letrari dagokionez, 20/2010 Foru Legean gaur egun idatzita dagoen bezala geratuko da:

“a) 1088/2005 Errege Dekretua bete dadin zaintzea eta Nafarroako Gobernuaren gidalerro estrategikoak gauzatzea hemoterapiari eta osasun-erabilerarako giza zelulen eta ehunen lorpenari dagokienez, bai eta arlo horretan Osasun Departamentuak zehazten duen politikarenak ere.”

Zioak: Gobernuak hemoterapiari eta giza zelulak eta ehunak osasun erabilerarako lortzeari dagokienez dauzkan estrategiak ente bakar, publiko eta koordinatu batek gauzatu behar ditu, eta ez hainbat zentro eta zerbitzuek. Estrategia bat Nafarroa osorako.

**15. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren seigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Honakoaren ordez:

a) (...) eta Nafarroako Gobernuaren gidalerro estrategikoak gauzatzea hemoterapiari eta osasun-erabilerarako giza zelulen eta ehunen lorpenari dagokienez...”

Hau jartzea proposatzen dugu:

a) (...) eta Gobernuaren gidalerro estrategikoak gauzatzea hemoterapiari eta osasun erabilerarako giza ehunen eta organoen...”

Zioak: Beharrezkotzat jotzen dugu giza organoak emateari buruzko legeria indarduna sartzea.

**16. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren seigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

5. artikuluko h) letrari honakoa gehitzea:

h) (...) “Nafarroako Gobernuak Adonarekin ildo horretan gauzatzen dituen hitzarmenak kendu gabe”

Zioak: Adonak ibilbide luzea du egina (50 urte) ematea sustatzeari dagokionez. Emaileak fidelizatzea errazten duen lan bat egiten du. Emaileentzako erreferente argia da elkarteak.

**17. ZUZENKETA****NAFARROA BAI ETA**  
**BILDU-NAVARROA**  
**PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Seigarren idatz-zatiko h) letra aldatzeko zuzenketa; letra horrek 20/2010 Foru Legeko 5. artikulua aldatzen du.

“h) Hemozainketa sarea koordinatzea Foru Komunitatearen barrenean, eta sarearen koordinatzaile gisa jardutea estatuan, otsailaren 9ko SCO/322/2007 Aginduarekin bat. 1301/2006 Errege Dekretua”

Zioak: Bete beharrekoa den errege dekretu bat, zergatik kendu?

**18. ZUZENKETA****NAFARROA BAI ETA**  
**BILDU-NAVARROA**  
**PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Seigarren idatz-zatiari f) bis letra gehitzeko zuzenketa; idatz-zati horrek 20/2010 Foru Legeko 5. artikulua aldatzen du.

“f bis) Odol-, zelula-, ehun- eta organo-emaileek osaturiko talde osoarentzako erregistro bakarra sortzea, bai eta aldi baterako edo behin betiko bazterturiko emaileen erregistro bat ere, bazterketaren arrazoiak adieraziko dituen”

Zioak: Ez dugu ulertzen zergatik kendu nahi den zentro publiko eta pribatuetako baliabideen eta jardueren inbentario bat, arrazoia oskurantis-moa ez bada.

**19. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA**  
**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren seigarren idatz-zatiari zenbait letra gehitzeko zuzenketa.

5. artikuluari zenbait puntu gehitzea proposatzen da:

i) Odol-, zelula-, ehun- eta organo-emaileek osaturiko talde osoarentzako erregistro bakarra sortzea, bai eta aldi baterako edo behin betiko bazterturiko emaileen erregistro bat ere, bazterketaren arrazoiak adieraziko dituen”

j) Organo-emateen eta transplanteen koordinazioaz arduratzea eta indarreko araudia betetzen dela zaintzea”

Zioak: Funtsezkoa da emaileen erregistro bakarrari eustea, HV eta Biozaintza sareak direla eta dauden legezko betebeharrak betetzeko.

**20. ZUZENKETA****NAFARROA BAI ETA**  
**BILDU-NAVARROA**  
**PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Seigarren idatz-zatiari j) letra gehitzeko zuzenketa. Idatz-zati horrek 20/2010 Foru Legeko 5. artikulua aldatzen du.

“j) Organo-emateen eta transplanteen koordinazioaz arduratzea eta indarreko araudia betetzen dela zaintzea (gaur egun, 2070/1999 Errege Dekretua)”

Zioak: Zergatik ez koordinatu organo-ematea eta transplanteak eta, gainera, zergatik kendu nahi da letra bat non esaten baita legeria indarduna deuseztatu beharra dagoela? Gure ustez egokia goa da legean jasotzea.

## 21. ZUZENKETA

### NAFARROAKO PARLAMENTUKO TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Seigarren idatz-zatian beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Idatz-zati hori 5. artikuluari buruzkoa da. Hona testua:

“Letra berria) Esleitutako eginkizunekin lotuta l+G+B lanak sustatzea”

Zioak: Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren ikerketa jarduera indartzea.

## 22. ZUZENKETA

### NAFARROAKO PARLAMENTUKO TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Seigarren idatz-zatian beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Idatz-zati hori 5. artikuluari buruzkoa da. Hona testua:

“Letra berria) Nafarroako Odol eta Ehun Bankuko langileei prestakuntza emateko programak sustatzea. Programa jarraituak izanen dira, jokabide zuzenei buruzko programak ere bilduko dituztenak.”

Zioak: Nafarroako Odol eta Ehun Bankuko langileen prestakuntza jarraitua indartzea.

## 23. ZUZENKETA

### NAFARROAKO PARLAMENTUKO TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Seigarren idatz-zatian beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Idatz-zati hori 5. artikuluari buruzkoa da. Hona testua:

“Letra berria) Nafarroako Odol eta Ehun Bankuak ematen dituen zerbitzuen jarraipenerako ekintzak sustatzea, European eta nazioartean erregistratutako kalitateko ziurtatze-sistemak aplikatzearen bitartez.”

Zioak: Jarduera indartzea kalitate-ziurtagiriak aplikatzearen bitartez.

## 24. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI ETA BILDU-NAVARROA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Zazpigarren idatz-zatiari b) letra gehitzeko zuzenketa. Idatz-zati horrek 20/2010 Foru Legeko 6. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letra aldatzen du.

“2. b) Zelulak eta ehunak lortzeaz arduratzen diren lan-taldeak koordinatzea.”

Zioak: Ez dugu ulertzen zergatik kendu nahi den zelulak eta ehunak lortzeaz arduratzen diren ekipoen koordinazioa.

## 25. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI ETA BILDU-NAVARROA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Zazpigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa; idatz-zati horrek 20/2010 Foru Legeko 6. artikulua aldatzen du.

20/2010 Foru Legeko arestiko 6. artikuluko 3. puntua gehitzen da. Hauxe, hain zuzen:

“Organo-emate eta -transplanterako zentro autonomiko gisa, honako eginkizun hauek beteko ditu:

a) Zaintzea bete egiten dela abenduaren 30eko 2070/1999 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira giza organoak lortzeko eta klinikoki erabiltzeko jarduerak eta organo-emate eta -transplantearen alorreko lurralde-koordinazioa.

b) Ziurtatzea ezen organo-emateei eta -hartzaildeei buruzko informazioa konfidentzialtasunik zorrotzenarekin bildu, tratatu eta zainduko dela.

c) Populazioaren informazioa eta hezkuntza sustatzea emate eta transplantei dagokienez, horien premian dauden pertsonen ekartzen dizkieten onurei dagokienez, bai eta prozedura honen inguruko baldintza, betekizun eta bermeei dagokienez ere.

d) Jarduera horiekin zerikusia duten osasun-alarreko profesionalen etengabeko prestakuntza sustatzea.

e) Bizirik dauden organo-emateei eta hildakoen organo-erazketari buruz indarreko araudiak ezartzen dituen baldintzak eta betekizunak betetzen direla ziurtatzea.

f) Bizirik dauden emateen eta hilik daudenen organo-erazketarako zentroei buruzko araudi indardunean exijituriko betekizunak bete egiten direla ziurtatzea.

g) Erregistro bat antolatu eta mantentzea, non beharrezkoak diren datuak bilduko baitira eginiko erauzketak, lorturiko organoak eta haien norakoa identifikatzeko, anonimotasuna eta konfidentzialtasuna ziurtatzen duten gako alfanumeriko egokiekin, indarreko legediak ezarritakoaren arabera.

h) Serum-artxibo bat mantentzea.

i) Esparru publikoan inplante alogenikoak egin ahal izateko, behar bezala kreditatu eta baimendutako histokonpatibilitate-unitate bat eduki beharko da, berariazko betekizuna baita bere eginkizunak bete ahal izateko, indarreko araudiari jarraituz.

j) Osasun eta Kontsumo Ministerioari jakinaraztea hildako emaleen organoen erauzketarako zentroetarako baimenei dagozkien erabakiak.

k) Ziurtatzea ezen giza organoen garraioak bete egiten dituela horretarako ezarrita dauden betekizunak.

l) Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluko Transplante Batzorde Iraunkorren parte hartu eta harekin lankidetzan aritzea.

m) Organo-erauzketa eta/edo -inplanterako kreditaturiko ospitale bakoitzean ezartzen diren transplante-koordinazioko unitate ezberdinak koordinatzea.

n) Erauzketa- eta/edo transplante-jarduerako prozeduretan parte hartzen duten zentroen eta transplanteen koordinazio-unitateen ikuskapenari dagokionez lankidetzan aritzea autonomia-erkidegoan gai horretan eskudun den agintariarekin.

ñ) Aurrekoen antzekoa den edo haiekin zerikusia duen beste edozein, eta etorkizunean onets litezkeen arauetan jasotako beste edozein.”

Zioak: Gure ustez zentroak organoen koordinazioaz ere arduratu behar du. Argi dago artikuluko honek desmuntatzen duela Departamentuak argudiatutakoa, alegia, organoak ez direla biltegiatzen; gauza nabarmena zen hori, badakigu, eta artikuluko honetan ikusten da zer den koordinazioa, legeak betetzea. Galdetzen jarraitzen dugu: zergatik kendu nahi da lege honetatik?

## 26. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI ETA BILDU-NAVARROA

#### PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Zazpigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa; idatz-zati horrek 20/2010 Foru Legeko 6. artikulua aldatzen du.

20/2010 Foru Legeko arestiko 6. artikuluko 4. puntua gehitzen da: hauxe, hain zuzen:

“4. NOEBek odol-ematearen eta bestelako emateen sustapenarekin lotuta dituen eginkizunak betetzeko, entitate horrek lankidetzarako esparruhitzarmen bat sinatuko du ADONA-Nafarroako Odol-emaleen Elkartearekin, odolaren eta hezurmuinaren ematearen planifikaziorako eta sustapenerako, bai eta bi alderdiek beharrezkotzat jotzen dituzten hitzarmen guztiak ere. Helburu berarekin eta baldintza beretan, lankidetzahitzarmenak sinatu ahalko dira entitate publiko eta/edo pribatu batzuekin, zeinek giza zelula eta ehunen bankuaren jarduerekin eta, batez ere, zelula, ehun eta organoen emate altruistarekin zerikusia baitute.”

Zioak: Badakigu Adonarekiko harremanak gero eta okerragoak direla, baina uste dugu puntu hau kentzea harreman guztiak deuseztatzea dela.

## 27. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren bederatzigarren idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Bederatzigarren idatz-zatia kentzea proposatzen da; idatz-zati horrek 7. artikulua aldatzen du.

Zioak: Uste dugu sortzen den entitateak emate altruista guztiak koordinatu behar dituela, egungo lege-esparrua modu efizienteago batean betetzeko.

## 28. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI ETA BILDU-NAVARROA

#### PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Bederatzigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa; idatz-zati horrek 20/2010 Foru Legeko 7. artikulua aldatzen du.

20/2010 Foru Legeko arestiko 7. artikulua zeukan testu bera izanen litzateke. Hauxe, hain zuzen:

“Nafarroako giza zelulen eta ehunen transfusio-sarea.

Giza zelulen eta ehunen transfusio-sarea honako hauek osatuko dute:

1. Nafarroako Odol eta Ehun Bankua.

2. Odolaren eta hemoderibatuen ospitale-gordailuak.

3. Giza ehunen lorpen eta inplanterako ospitale-unitateak.



4. Organo-emateen eta -transplanteen koordinazio autonomikoa”

Zioak: Gure ustez, organoen koordinazioak ere existitu behar du. Gainera, uste dugu ente publiko batek bakarrak existitu behar duela, odolarekin, ehunekin eta organoekin zerikusia duen guztia koordinatuko duena.

## 29. ZUZENKETA

### NAFARROAKO PARLAMENTUKO TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

Bederatzigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Idatz-zati hori 7. artikuluari buruzkoa da.

7. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea proposatzen da.

“2. Ospitale publiko nahiz pribatuetako transfusio zerbitzuak”

Zioak: Lege proiektuko 6. artikuluko “e” letrarekin eta 14. artikuluko “c.4” idatz-zatiarekin bat etortzea.

## 30. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren hamargarren idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Hamargarren idatz-zatia kentzea proposatzen da. Idatz-zati horrek 9. artikulua aldatzen du.

Zioak: Artikulu horren aurreko testua zehatzagoa eta konkretuagoa zela uste dugu, bereziki organoen erregistroari eta itxaronzerrerei dagokionez.

## 31. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI ETA BILDU-NAVARROA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Hamargarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa; idatz-zati horrek 20/2010 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen du.

20/2010 Foru Legeko arestiko 9. artikulua testua izanen litzateke; hauex, hain zuzen:

“Giza zelula, ehun eta organoen lorpenerako eta/edo inplanterako unitateak.

1. Erkidegoko ospitale publiko eta pribatuetan kokaturiko zelula-, ehun- eta organo-lorpenerako eta/edo -inplanterako unitateek zuzendari izanen dute bere eginkizunak betetzeko beharrezkoa den titulazioa daukan arduradun bat.

2. Giza zelulen, ehunen eta organoen lorpenerako eta/edo inplanterako zentroek honako berarizko eginkizunak beteko dituzte transfusio eta giza zelula eta ehunen sarearen esparruan:

a) NOEBekin eta transplanteen koordinatzaile autonomikoarekin lankidetzan aritzea giza zelulen, ehunen eta organoen emate altruista ospitale barneko esparruan sustatzeko.

b) Behar diren neurriak hartzea, era horretan ziurtatzeko ezen haietan ingesatzen diren herritar guztiek eta beren ahaideek helburu terapeutikotarako organo-emate eta -erauzketaren gaineko araubidea osoki ezagutzen dutela.

c) Giza ehunen lorpen, gordetze, garraio eta inplantearen kalitate-programan parte hartzea, prozesu osoaren kalitate-kontrola ziurtatuz, egoki diren azterlan eta behaketen bitartez, eta 1301/2006 Errege Dekretuan ezarritakoa betez.

d) NOEBarekin lankidetzan aritzea ezartzen diren irakaskuntza- eta ikerketa-programetan.

e) Zelulen, ehunen eta organoen erauzketen eta inplanteen erregistro eguneratu bat mantentzea, bai eta zentroaren jarduerarekin zerikusia duten administrazio-alderdi guztiena ere, datu-babesari buruzko legea betez.

f) Baimenduta duten jarduerari buruz eskatzen zaien informazio guztia ematea, eskatzen den forman eta moduan”

Zioak: Ez gaude ados organoak kentzearekin eta, gainera, ezin gaitzke egon gardentasunaren aurka, hemoderibatu, ehun eta organoak ematea bezain sentibera den gai batean.

## 32. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren hamaikagarren idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Hamaikagarren idatz-zatia kentzea proposatzen da; idatz-zati horrek 10. artikulua kentzen du.

Zioak: Uste dugu zehaztu beharra dagoela nork zuzentzen eta koordinatzen dituen transplanteak.

**33. ZUZENKETA****NAFARROA BAI ETA  
BILDU-NAVARROA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Hamaikagarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa; idatz-zati horrek 20/2010 Foru Legeko 10. artikulua kentzen du.

20/2010 Foru Legeko 10. artikulua testua izanen litzateke; hauxe, hain zuzen:

“Organo-emateen eta -transplanteen koordinazioa.

2070/1999 Errege Dekretuko 20. artikulua aplikatuz, Foru Komunitateko transplanteen koordinazioari “Organo Emateen eta Transplanteen Koordinazioa” deituko zaio.

1. Haren zuzendaritzaz koordinatzaile autonomiko bat arduratuko da, agintari eskudunak Osasunbideari atxikitako langileen artetik izendatua, eta ematearen eta transplanteen esparruan esperientzia frogatua izan beharko du. Haren lanaldia eskusiboa izan da koordinatzaile gisa esleiturik dauzkan eginkizunak betetzeko, eta organikoki NOEBeko zuzendariaren menpe egonen da.

2. Organo eta ehunen erauzketarako eta/edo transplanterako baimenduriko ospitale bakoitzean, bertako zuzendariak organo- eta ehun-transplanteen koordinatzaile bat izendatuko du.

3. Zentro bakoitzak beharrezkoak diren azpiegitura eta bitartekoak izanen ditu, organoen eta ehunen erauzketa eta/edo transplantea indarreko legedian ezarritako betekizunen arabera egiteko.

Emate eta transplanteen koordinatzaile autonomikoak honako eginkizun hauek beteko ditu:

a) 2070/1999 Errege Dekretua bete dadin zaintzea, bai eta koordinatzailearen jarduerari buruz etorkizunean argitaratzen diren arau guztiak ere.

b) Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluko Transplante Batzorde Iraunkorrak ezartzen dituen helburu orokorretarako lankidetzan aritzea.

c) Ehunen Batzorde teknikoan parte hartzea.

d) Erkidegoko biozainketa-sarea koordinatzea.

e) Agintari eskudunek haren gain utzitako beste edozein eginkizun.

Ospitale bakoitzeko organo- eta ehun-transplanteen koordinatzaileak honako eginkizun hauek beteko ditu:

Zelulen eta ehunen lorpen eta/edo inplanterako jarduerak koordinatzea. Ehunen Batzorde Teknikoan parte hartzea.

Zentroko biozainketa-sistemaz arduratzea.

Agintari eskudunek esleitzen dioten beste edozein.

Bere zentroan organo- eta ehun-transplanteekin zerikusia duten jardueretan indarreko legedia bete dadin zaintzea.

Zioak: Ez dugu uste organoak kanpoan eskatu behar direnik. Berriz diogu, gardentasunarengatik.

**34. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren hamabigarren idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Hamabigarren idatz-zatia kentzea proposatzen da; idatz-zati horrek 11. artikulua kentzen du.

Zioak: Gure ustez, zehaztu behar dira erregulatu den organismoaren zuzendaritza organoak, bereziki zuzendariari eta haren eginkizunei dago-kionez, bai eta postu hori betetzeko moduari dago-kionez ere.

**35. ZUZENKETA****NAFARROA BAI ETA  
BILDU-NAVARROA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Hamabigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Idatz-zati horrek 20/2010 Foru Legeko 11. artikulua kentzen du.

20/2010 Foru Legeko 11. artikulua testua izanen litzateke; hauxe, hain zuzen:

“NOEBen zuzendaria

1. Zuzendari-postua oposizio-lehiaketa bidez beteko da, erakunde autonomoari atxikita dauden hematologia eta hemoterapiako langile mediko espezialisten artetik, betiere transfusio-alorrean bi urte baino gehiagoko esperientzia frogatzen badute.

2. Zuzendariaren erantzukizunak honakoak izanen dira:

a) Bere gain hartzea aipaturiko zentroaren ordezkari ofiziala eta zentroaren barruko agintaritza goren egikaritzea.

b) Osasunbideko zuzendaritzak ezarritako gidalerroak eta arauak betetzea eta betearaztea.

c) Lan-ildoak proposatzea eta entitatearen jardueraren emaitzak ebaluatzea.

d) NOEBi atxikitako unitate ezberdinen jarduerak eta helburuak elkarlanean antolatu, zuzendu eta ebaluatzea.

e) Entitatearen urteroko jarduera-oroitidazkia eta urteroko aurrekontuen proposamena prestatzea eta horien betetzeari buruzko aldizkako txostenak aurkeztea.

f) Zentroaren eginkizunek beharrezkoa duten plangintza, koordinazioa, zuzendaritza eta ebaluazioa mantentzea Nafarroako transfusio eta zelula eta ehunen sarearen osotasunean.

g) Informazio-sistema bat sortu eta mantentzea, efizientziaren eta kalitatearen ebaluazioa eta kontrola ahalbidetuko dituen.

h) Berrikuntza, etengabeko hobekuntza eta bere zerbitzuen kalitatearen ebaluazioa sustatzea, eta bere eginkizunen jarraitasuna bermatzea.

i) Atxikitako unitate ezberdinen arteko baliabide-banaketa aldatzea.

j) Odol-bankuan baldintza eta betekizun guztiak aplikatzea eta 1088/2005 Errege Dekretuak araututako funtzionamendu-araubidea ezartzea.

k) Baimentze-prozeduretan eskudun diren osasun-agintariei informazioa ematea, 1088/2005 Errege Dekretuan aipaturiko gutxieneko informazioaren arabera.

l) Langileei, kalitateari, dokumentazioari, erregiratzeari, trazabilitateari eta kontrako eragin eta erreakzio larrien jakinarazpenari buruz 1088/2005 Errege Dekretuak, 1343/2007 Errege Dekretuak eta CSO/322/200 Aginduak ezarritako betekizunak betetzea.

m) Zaintzea Foru Komunitatearen esparruan gizakiengan inplantatzekoak diren ehunak eta zelulak prozesatu, biltegiatu eta banatuak direla 1301/2006 Errege Dekretuak ezarritakoari jarraituz.

n) Osasun-arloko agintari eskudunei informazioa ematea 1301/2006 Errege Dekretuak ehun-establezimenduei exijituriko baldintzei, betekizunei eta funtzionamendu-araubideari buruz.

ñ) Zelula- eta ehun-bankuan baldintza eta betekizun guztiak aplikatzea eta 1301/2006 Errege Dekretuak araututako funtzionamendu-araubidea ezartzea.

o) NOEBeko ikerketa- eta irakaskuntza-programa prestatzea.

p) Osasunbideko zuzendari-kudeatzaileari modu jarraian aholku ematea, egokitzat jotzen dituen hobekuntza guztiak proposatuz.

q) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak espresuki esleitzen dizkion beste eginkizun guztiak”

Zioak: Uste dugu zuzendari postua oposizio-lehiaketa bidez hautatu beharra dagoela eta horrelako postuak despolitizatu behar direla, kudeaketa hobetzeko eta kudeaketaren argitasuna areagotzeko.

### **36. ZUZENKETA**

#### **IZQUIERDA-EZKERRA**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren hamahirugarren idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Hamahirugarren idatz-zatia kentzea proposatzen da; idatz-zati horrek 12. artikulua kentzen du.

Zioak: Gure ustez, zehaztu behar dira erregulatzen den organismoaren zuzendaritza organoak, bereziki zuzendariordeari eta haren eginkizunei dagokionez, bai eta postu hori betetzeko moduari dagokionez ere.

### **37. ZUZENKETA**

#### **NAFARROA BAI ETA BILDU-NAVARROA**

##### **PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Hamahirugarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Idatz-zati horrek 20/2010 Foru Legeko 12. artikulua kentzen du.

20/2010 Foru Legeko 12. artikulua testua izanen litzateke; hauxe, hain zuzen:

“NOEBeko Kudeaketa eta Giza Baliabideen zuzendariordea.

1. Zuzendariorde-postua betetzeko, agintari eskudunak askatasunez izendatu ahal du Nafarroako Gobernuaren plantillako langile bat, esleituriko zereginetan esperientzia frogatua duena.

2. Kudeaketa-alorrean, zuzendariordearen berriazko eginkizunak honako hauek izanen dira:

a) NOEBaren baliabide material finko eta mugikorren kontserbazio funtzionala ziurtatzea, eta atxikitako ondarea egokiro kudeatzea.

b) Urteko aurrekontuak prestatu eta kudeatzea, gastuetakoak zein diru-sarreretakoa.

c) Kontabilitateko eta aurrekontuetako egoerorri aldizkakoak aurkeztea, erregelamendu-printzipioen arabera.

d) NOEBeko unitateentzat beharrezkoak diren baliabide materialen hornikuntza kudeatzea; halaber, hornigai horiek egokiro biltegitzeko eta unitate eskatzaileei banatzeko kudeaketa-lana egitea.

e) NOEBerako ibilgetuaren eta erabiltzen ari den ekipamenduaren mantentze prebentiborako planak sustatu eta kontrolatzea, eta horiek guztiak behar bezala konpondu eta birjarriko direla segurtatzea.

f) Zerbitzuen funtzionamendurako beharrezkoak diren hornikuntza txikien kontratuak sinatzea, eta konponketa eta mantentze hutsekoak diren lanak egitea, betiere haien zenbatekoak hornidura txikietarako ezarritako mugak gainditzen ez baditu.

g) Konturako ziurtagirien, material inbentariagarriaren fakturen, bestelako hornigaien, konponketa eta mantentze hutsekoak diren lanen eta laguntza teknikoko kontratuen ordainketak baimentzea, organo eskudunak haien gastua onetsi badu.

h) NOEBeko arropa zuriaren, arropa-garbitegiaren, garbitze-lanen eta mantentze-lanen zerbitzuen eta agindupeko langileen gaineko zuzendaritza-, koordinazio- eta ikuskapen-lanak egitea.

i) Behar diren aplikazio informatikoen eta laguntza administratiboen ezarpen, funtzionamendu eta erabileraren gaineko zuzendaritza- eta koordinazio-lana egitea.

j) NOEBeko zuzendariak berariaz eskuordetzen dizkion beste eginkizunak.

3. Langileria-alorrean, NOEBeko zuzendariordeak berariazko eskumen hauek izanen ditu:

a) NOEBeko langileen burutza.

b) NOEBeko langileen jardueren, eginkizunen eta funtzioen gaineko zuzendaritza- eta koordinazio-lana.

c) NOEBaren egitura organikoaren barrenean, langileei lanpostu zehatzak esleitzea.

d) Langileak lanerako ezintasun iraunkor osoko edo absolutuko egoeran daudela deklaratzeko edo haiei alta emateko proposamenak egitea.

e) Falta arinengatik diziiplina-espeditenteak ireki eta ebaztea.

f) Langileria-alorreko beharrianak zehaztea, kasuko enplegu-eskaintzak, plantilla organikoa eta langileen zerrenda izendunak prestatzeko.

g) Aldi baterako langileen kontratazioa baimendu eta formalizatzea, erregelamenduz ezarritako prozeduraren bitartez.

h) NOEBari atxikitako langileen baimenak, lizentziak, oporrak eta joan-etorriak baimentzea.

i) NOEBari atxikitako langileentzako produktibitate-osagarria, gastu-ordainketa eta epaimahaietan nahiz prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeagatik diru-saria baimentzea, organo eskudunak ezarritako zenbatze-irizpideei jarraituz.

j) Zerbitzua dela-eta egin beharreko joan-etorriak baimentzea.

k) Hartzekoei eta emandako zerbitzuei buruzko ziurtagiriak ematea.

l) Nominak, aseguru sozialak, osasun-laguntza eta langileen bestelako prestazio ekonomikoak egituratu eta kudeatzea. Langabeziako sorospena jasotzeko behar den dokumentazioa formalizatzea. Hori guztia, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzak emaniko jarraibideak zorrotz betez.

m) Langileen erregistro integratua, espediente pertsonalak, plantilla organikoa eta zerrenda egin, mantendu eta gaurkotzea

n) NOEBeko zuzendariak berariaz eskuordetzen dizkion beste eginkizunak”

Zioak: Argitasunagatik eta gardentasunagatik.

### 38. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI ETA BILDU-NAVARROA

#### PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Hamalagarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa; idatz-zati horrek 20/2010 Foru Legeko 13. artikulua kentzen du.

20/2010 Foru Legeko 13. artikuluaaren testua izanen litzateke; hauxe, hain zuzen:

“Emateen eta Transplanteen Batzorde Aholku-emailea.

1. NOEBi aholku emateko organo gisa, kontsul-ta-batzorde bat izanen da, honako kide hauek osatua:

Batzordeburua: Osasun Departamentuko zuzendari nagusia.

Idazkaria: NOEBaren zuzendaria.

Batzordekideak:

- Osasun Departamentuko ordezkari bat, Osasun zuzendari nagusiak proposatua.
- Laguntza Espezializatuko zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona bat.
- Organo-emateen eta -transplanteen koordinatzaile autonomikoa.
- Odol Emaileen Elkartearen bi ordezkari.
- Giza odol-, zelula-, ehun- eta organo-emate altruistari dagokionez existitzen diren edo eratu litezkeen beste elkarten ordezkari bana.

Batzordekideek hala eskaturik, jorratu beharreko gaietan aditu direnen lankidetzaz izaten ahalko da.

2. Kontsulta-batzordeak honako eginkizun hauek izanen ditu:

- a) Foru Komunitatearen barrenean odol-, hemoderibatu-, zelula-, ehun- eta organo-emate altruista sustatzea.
- b) Odol eta hemoderibatuei –giza plasmatik eratorritako farmazia-produktuak barne-, zelulei eta ehunei dagokienez beharizan-asetzearen eta beharra duten osasun-zentro guztiei banaketa egitearen nondik norakoak programatzea.
- c) Odol- eta hemoderibatu-unitateen ebaluazio ekonomikoa, giza plasmatik, organoetatik, ehunetatik eta zeluletatik eratorritako produktu farmazeutikoak barne.
- d) Organo eta ehunen emate eta transplantean jarduten diren beste elkarte, erakunde eta entitate batzuekin koordinatzea eta lankidetzaz aritzea.

3. NOEBen zuzendariak Batzorde Aholku-emaileari informazio xehaketa eman beharko dio, sei hilabete behin edo maizago, lorturiko odol, hemoderibatu, zelula, ehun eta organo-eraburuz, horien helmugari buruz eta jardueren zenbatespen ekonomikoari buruz.

4. Batzorde Aholku-emaileak bilkura arrunta egiten du sei hilabete behin, eta ohiz kanpokoa egiten du batzordeburuak horretarako deialdia egiten duenean edo batzordekideen heren batek horretarako eskaera egiten duenean”

Zioak: Argitasunagatik eta gardentasunagatik.

### 39. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI ETA BILDU-NAVARROA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Hamabosgarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa; idatz-zati horrek 20/2010 Foru Legeko 14 artikulua aldatzen du.

20/2010 Foru Legeko 14. artikulua testua izanen litzateke; hauxe, hain zuzen:

“Hemoterapia Batzordea.

Hemoterapia-alorrean eta Nafarroako hemozaintza-sistemaren funtzionamenduari dagokionez aholkularitza tekniko emateko organo gisa eratzten da Hemoterapia Batzordea, honako hauei aholku emateko: osasun-arloko agintariei, NOEBi eta Nafarroako osasun-laguntzako zentro eta zerbitzu ezberdinei. Honako kide hauek osatuta egonen da Hemoterapia Batzordea:

Batzordeburua: Osasun Departamentuko zuzendari nagusia, edo hark eskuordetutako pertsona bat.

Idazkaria: Nafarroako Hemozaintzako koordinatzailea.

Batzordekideak:

- Laguntza Espezializatuko zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona bat.
- NOEBaren zuzendaria.
- Emateen eta transplanteen koordinatzaile autonomikoa.

Nafarroako Hemozaintzako koordinatzailea.

- Nafarroan kokaturiko ospitale publiko eta pribatu bakoitzeko transfusio-zerbitzuko arduraduna.

Batzordekideek hala eskaturik, jorratu beharreko gaietan aditu direnen lankidetzaz izaten ahalko da.

Hemoterapia Batzordeak honako eginkizun hauek izanen ditu:

- a) Sei hilabete behin odol- eta hemoderibatu-ematearen bilakaera jakitea, horrela ebaluatzeko Odol Bankuko zerbitzuen estaldura-maila edo beharizan teknikoekiko egokitzapena.
- b) Nafarroako hemozaintzako koordinatzailearen urteko txostena onestea.
- c) Jakinarazi beharreko kontrako erreakzioak proposatzea, bai eta modua, mota eta nomenklatura ere, eta haiek ondoren izan beharreko ebalua-

zioa, Hemoterapia Batzorde Nazionalak erabakitakoaren ildotik.

d) Jarduketak proposatzea, beharra duten osasun zentro guztietan odolaren eta hemoderibatuen beharren asetze-maila eta haien banaketa hobetzeko.

e) Transfusioen kalitatearen adierazleak Foru Komunitatearen esparruan definitzea, bai eta ospitale bakoitzaren esparruan ere, ospitaleetako transfusio batzordeen bitartez, kasua bada.

f) Osasun-arloko agintariei informazioa ematea haiek ezartzen duten moduan eta maiztasunarekin, eta, betiere, osasun publikoan eragina izan lezakeen edozein alarma- edo larrialdi-egoeratan.

Hemoterapia Batzordearen funtzionamendua bat etorriko da batzorde horrek onesten duen barne-araubideko erregelamenduarekin.

Arau orokor gisa, batzordeak bilkura arrunta eginen du sei hilabete behin, eta ohiz kanpokoa eginen du batzordeburuak horretarako deialdia egiten duenean edo batzordekideen heren batek horretarako eskaera egiten duenean.”

Zioak: Sakoneko kontua da, odol eta ehun zentroaren ereduari dagokiona: Ospitalegunearen menpekoea edo zuzenean laguntza espezializatuen menpeko unitate publiko bat.

#### 40. ZUZENKETA

##### IZQUIERDA-EZKERRA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren hamabosgarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hamabosgarren idatz-zatiko 2 f) idatz-zatia aldatzea. Hona testu berria:

“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun arloko agintariei informazioa ematea...”

Zioak: Zuzendaritza nagusia ez da organigramako atal bat. Sortzen den erakundearen menpekoea da. Uste dugu ez dela Ospitaleguneko beste zerbitzu bat izan behar.

#### 41. ZUZENKETA

##### IZQUIERDA-EZKERRA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren hamabosgarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hamabosgarren idatz-zatiko 2 f) idatz-zatitik honako testua kentzea:

“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun arloko agintariei informazioa ematea...”

Zioak: Zuzendaritza ez da organigramako atal bat. Sortzen den erakundearen menpekoea da.

#### 42. ZUZENKETA

##### NAFARROAKO PARLAMENTUKO TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Hamabosgarren idatz-zatian beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Idatz-zati hori 14. artikuluari buruzkoa da. Hona testua:

“Letra berria) Nafarroako Emaileen Elkarteko (Adona) ordezkari bat, zeina Nafarroako Gobernuko Osasun zuzendari nagusiak izendatuko baitu.”

Zioak: Adona entitatea Hemoterapia Batzordean sartzea.

#### 43. ZUZENKETA

##### IZQUIERDA-EZKERRA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren hamabosgarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hamabosgarren idatz-zatiko 3. puntuaren amaieran testu hau gehitzea proposatzen da:

“Arau orokor gisa, batzordeak bilkura arrunta eginen du sei hilabete behin, eta ohiz kanpokoa eginen du batzordeburuak horretarako deialdia egiten duenean edo batzordekideen heren batek horretarako eskaera egiten duenean.”

Zioak: Egokia da gutxienez ere urtean bi bilera arunt egitea, nahitaezkoak.

#### 44. ZUZENKETA

##### NAFARROA BAI ETA BILDU-NAVARROA

##### PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Hamaseigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa; idatz-zati horrek 20/2010 Foru Legeko 15. artikulua aldatzen du.

20/2010 Foru Legeko 15. artikulua testua izanen litzateke; hauxe, hain zuzen:

“Ehunen eta Organoen Batzorde Teknikoa.

1. Zelulen eta ehunen alorrean NOEBi aholku emateko organo gisa, ehunen batzorde tekniko bat arituko da, honako hauek osaturikoa:

Batzordeburua: Osasun zuzendari nagusia.

Idazkaria: NOEBaren zuzendaria.

Batzordekideak:

- Laguntza Espezializatuko zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona bat.
- Organo Emateen eta Transplanteen Koordinatzailea.

- Ospitale publiko eta pribatuetako ehun-lorpen eta/edo -inplanteko unitate bakoitzeko arduraduna, ospitaleko zuzendariak proposatuta.

Batzordekideek hala eskaturik, jorratu beharreko gaietan aditu direnen lankidetzaz izaten ahalko da.

Ehunen eta Organoen Batzorde Teknikoak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Sei hilabetez behin zelulen, ehunen eta organoen ematearen eta inplanteen bilakaera jakitea, horrela ebaluatzeko kreditaturiko zerbitzu ezberdinen estaldura-maila edo beharizan teknikoekiko egokitzapena.

b) Nafarroako Biozaintzako Koordinatzailearen urteroko txostena onestea.

c) Jakinarazi beharreko kontrako erreakzioak proposatzea, bai eta modua, mota eta nomenklatura, eta haiek ondoren izan beharreko ebaluazioa nahiz egoki diren zuzenketa-ekintzen ezarpena ere.

d) Jarduketak proposatzea, beharra duten osasun zentro guztietan zelulen eta ehunen beharren asetze-maila eta haien banaketa hobetzeko.

e) Ehun-inplanteen kalitatearen adierazleak Foru Komunitatearen esparruan definitzea, bai eta ospitale bakoitzaren esparruan ere, haien kontrolerako eraturiko ospitale-batzordeen bitartez, kasua bada.

Ehunen eta Organoen Batzorde Teknikoaren funtzionamendua bat etorriko da batzorde horrek onesten duen barne-araubideko erregelamendua-ekin”

Zioak: Batzordeak, gure ustez, Ehunen eta Organoen Batzorde Teknikoa izan behar du, horixe baita nahi dugun zentroaren filosofia, organoak bildu nahiz ez bildu. Gardentasun erabatekoa bildu nahiz ez bildu, zentroa zeinen menpekoea den alde batera utzita, aurrekoaren motibazio berarekin.

## 45. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko hamaseigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Idatz-zati hori 15. artikuluari (Batzorde teknikoaren eginkizunak) buruzkoa da.

2.f) idatz-zatian 15. artikuluari buruz dagoen testua kentzea proposatzen dugu. Honela geratuko da idatzita:

“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun arloko agintariei informazioa ematea...”

Zioak: O-NOZen kudeaketa-zuzendaritza ez da organigraman ageri. Kontua da sortzen den entitateak Osasunbidearen gerentziaren menpekoea edo zuzendaritza nagusiaren menpekoea den. Uste dugu ez dela Ospitaleguneko beste zerbitzu bat izan behar.

## 46. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko hamaseigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Idatz-zati hori 15. artikuluari buruzkoa da.

Testuan, hau jartzen du:

“15. artikulua. Ehunen Batzorde Teknikoa”

Hau jartzea proposatzen dugu:

“15. artikulua. Ehunen eta Organoen Batzorde Teknikoa”

Zioak: Organoek ere lege honen xede izan behar dute.

## 47. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko hamaseigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Idatz-zati hori 15. artikuluari buruzkoa da.

15. artikulua testu osoan, ehunen edo/eta zelula eta ehunen aipamena egiten den guztietan “eta organoak” gehitzea.

Zioak: Organoek ere lege honen xede izan behar dute.

**48. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI ETA  
BILDU-NAVARROA  
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Hamazazpigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa; idatz-zati horrek 20/2010 Foru Legeko 16. artikulua aldatzen du.

20/2010 Foru Legeko 16. artikulua testua izanen litzateke; hauxe, hain zuzen:

“Ospitaleetako transfusio batzordeak.

1. Ospitale bakoitzean, hala publikoetan nola pribatuetan, NOEBek horniturikoak diren odolaren eta hemoderibatuen kudeaketa modurik onenean egiteaz arduratzen diren organoak dira.

2. Kide hauek izanen dituzte:

Batzordeberrua: Ospitaleko zuzendari medikoa.

Idazkaria: Odolaren eta hemoderibatuen ospitale-gordailuaren arduraduna.

Batzordekideak:

- Komunitateko hemozaintza-koordinatzailea.
- Honako zerbitzu edo atal hauetako fakultatibo ordezkariak (zerbitzu edo atal horiek egonez gero): anestesia, kirurgia kardiakoa, kirurgia orokorra, kirurgia baskularra, kirurgia torazikoa, hematologia, barne-medikuntza, nefrologia, obstetria, onkologia eta traumatologia.

- Erizaintza-zuzendaritzako ordezkaria eta hemoterapia-unitateko erizain bat.

Batzordekideek hala eskaturik, jorratu beharreko gaietan aditu diren lankidetzak izaten ahalko da.

3. Ospitaleko transfusio-batzordea hiru hilabete behin bilduko da, eta honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Zehaztea zer estandar eta prozedura aplikatuko diren transfusioetan, ospitale-zentro bakoitzean egiten diren jardura klinikoen arabera.

b) Zentroaren jardura ebaluatzea, transfusio-estatistika aztertuz, eta zuzenketa-neurriak proposatzea, aurreikusitakoarekiko desbideraketarik egonez gero

c) Ospitaleen esparruan odolaren eta hemoderibatuen erabilierarik egokiena sustatzea.

d) Transfusioarekin zerikusia duten irakaskuntza jarduerak sustatzea zeregin horretan aritzen diren osasun arloko langileen artean.

e) Transfusio alorrarekin zerikusia duen dotazio teknikoak, materiala eta pertsonala ebaluatzea.

f) Transfusioaren metodologia arautzea (lagin-erazketa, identifikazioa, osagai-motak eta bolu-mena, eskaerak eta erabilera-plana).

g) Erabateko odol-transfusio guztiak ebaluatzea.

h) Egiaztaturiko transfusio-erreakzio guztiak ebaluatzea.

i) Autotransfusioak sustatzea, horrek dituen indikazio terapeutikoen barruan.

j) Emateak sustatzea ospitaleen esparruan.

k) Beste ospitale batzuekiko eta NOEBekiko lankidetzari eustea.

l) Odol-ematearen, transfusioen eta hemoderibatuen arloetan indarra duen legedia zentroaren barrenean bete dadin begiratzea.”

Zioak: Besteak beste, ez dira gauza bera transfusioaren metodologia arautzea eta transfusio-protokoloei buruz informatzea. (Terminologia kontua da batzuentzat; beste batzuentzat, berriz, argitasun eta gardentasun kontua).

**49. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona haren edukia:

“Xedapen gehigarria. Hemoterapia Batzordea eta Ehunen Batzorde Teknikoa foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean eratu dira.”

Zioak: Bi batzorde horiek sortzeko epea zehaztea, foru lege proiektuan ez baita zehazten.

**50. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

Testu hau izanen duen xedapen gehigarri bat gehitzea proposatzen da:

“Xedapen gehigarria. Osasun publiko organo-  
en transplanterako egokitzea.

Foru lege hau onetsi eta bi urteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, Osa-



sun Departamentuaren bitartez, bere buruari bitarteko guztiak eman beharko dizkio, bai eta behar diren ziurtagiriak ere, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, segurtasun berme guztiekin, organoak transplantatzeko egin beharreko ebakuntza guztiak egin ahal izateko.”

Zioak: Legetik organo-emateari buruzko eta haien kudeaketari buruzko guztia kendu bada ere, egokia dirudi legea aprobetxatzea erreferentzia bat egiteko, gure ustez egokia: arrazoizko epe batean, bi urte, osasun publikoak prestatuta egon beharko du organoak transplantatzeko ebakuntzei ekiteko, segurtasun berme guztiekin eta arlo horretan eskudunak diren organismoek ezarrita dauzkaten arau eta betebeharren arabera. Ez da logikoa bete-betean XXI. mendean gaudenean, Nafarroa gai ez izatea, beste erkidego batzuk gai diren bitartean, horrelako ebakuntzak egiteko, eta haiek osasun pribatura bideratu behar izatea.

Osasungintza publikoak prestigioa irabaz dezan nahi badugu, hauxe da hori lortzeko bide egokia. Osasun publikoko profesionalak ederki prestatuta daude eta orain, presarik gabe baina atsedetik gabe, azpiegiturak eta bitartekoak egokitzeko garaia da.

## 51. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI ETA BILDU-NAVARROA

#### PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bakarra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Garai hauetan, argi dago batzuentzat eta besteentzat Odol eta Ehun Bankuaren egitura

gutziz kontrakoa dela. Nola liteke legea etenda utzi nahi izatea Odol eta Ehun Bankuaren egitura organikoa garatu arte, datarik jarri gabe, Gobernua ezagututa?

## 52. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bakarra aldatzeko zuzenketa.

Xedapen iragankor bakarrerako testu berria proposatzen da, honako edukiarekin:

“Xedapen iragankor bakarra. Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren egungo egiturari eustea.

Foru lege honen hamabigarren eta hamahirugarren puntuen eraginkortasuna etenda uzten da, harik eta Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren egitura organikoa garatu arte. Nolanahi ere, hori ezin izanen da urtebete baino gehiago geroratu foru lege hau onesten denetik.”

Zioak: gure ustez ezin da sine die etenda geratu hamabigarren eta hamahirugarren puntuen eraginkortasuna. Horregatik, urtebeteko epea ezartzen dugu NOEBaren egitura organikoa, ezinbestez, gara dadin.

## 53. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI ETA BILDU-NAVARROA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Xedapen indargabetzaile bakarra kentzeko zuzenketa.





